

FILOSOFIAREN EDESTIA

KANT (1724-1804)

ZER ZER DAN:

- Racionalismo: Buru-argien bidea.
- Empirismo: Zentzunen bidea.
- Crítica de la razón pura: Buru-argi utsaren azterbidea
- Crítica de la razón práctica: Egiteetarako buru-argiaren azterbidea.
- Crítica del juicio: Baiezteko edo ezezteko esaldien azterbidea.
- Metafísica de las costumbres: Oituren metafísica edo atzean dagozan burubideak.
- Experiencia: Bizi-ikasía.
- Elementos científicos: Zientzi-bideko gaiak.
- Causalidad: Gauza egiñen sorketa edo iturria.
- Existencia: Izatea.
- Espacio: Zabaltasuna.
- Fenómeno: Agiri diran gauzen bidea.
- Noumeno: Ulerbideko gaiak.
- Objeto: Ezagutua.
- Juicio: Baieztea edo ezezteak.
- Juicio a priori: Adimenetik datorren esaldia.
- Juicio a posteriori: Bizi-ikasitik datorren esaldia.
- Juicio sintético: Ezagutuak batzen dauzan esaldia.
- Juicio analítico: Adimenaren ezagupenak aztertzen dauzan esaldia.
- Silogismo: Esaldien arteko errazoketa.
- Sensibilidad: Sentimena.
- Intuición: Adimenak beragan ikusten dauan burubidea.
- Categoría: Ezagupen eta esaldi alkartuak, amabi dira.
- Función: Zeregiña.
- Sujeto transcendental: Kategorien antzean dagoan norbera. (Ich denke/Pensatz en dot)
- Imperativo categórico: Norberaren aginte sendoa.
- Imperativo hipotético: Baldintza dauan agintea.
- Postulados: Baieztu barik onartzen diran burubideak.

KANT BENETAKO GIZAUNDIA

Aztertu dogu noraiño eldu diran buru-argiak eta noraiño zentzun-bideko enpiristak eta zelako erakarria izan eben Argituak, baiña orain iru iturri orreik aurrean dauzan gizandi baten bizitzara sartzeraz goaz, Immanuel Kant aundia aztertzeke, eta orretara amaitzen dogu filosofi barritu edo modernoak lortu eban dana.

BIZITZEA

Königsberg'en jaio zan eta beronen amak ondo ezi eban erlejiño eta jokabide arloetan, protestanteen pietismoaren

barruan. Eta gero ikasi eban ekastetxean be estuegi artu eben erlejiñozko egiteen bidea. Ikastetxe Nagusira sartu zanean erlejiñozko egite orreitatik urrindu egin zan. Bere uriko ikastetxe orretan ezagutu eban Newton eta fisika, matematika ta filosofia bideak. Orretan aita il jakon eta sendi batzutara joan bear izaten eban irakasle lez ogia irabazteko.

Bere Königsberg aretan lortu eban dotoretza suari buruz egin eban maixu-lanagaz eta irakastegia be lortu eban, ez bakarrik filosofia irakasteko, biolojia, jeografia eta pedagogia be bai. Geroago Lojika eta Metafisika irakasten asi zan eta or argitaratu eban Buru-argi utsaren azterbidea edo "Crítica de la razón pura". Bederatzi urte geroago, 1790, Egiteetarako buru argiaren azterbidea edo "Crítica de la razón práctica".

Idazti deunaren aurkako eritxiak agertzen ebazala esanez salatu eben, eta geiago erlejiñorik ez aitatzea erabagi eban.

Azkenengo urteak politikaren eta edestiaren filosofia eta oitura arloarena agertzeke izan ziran. 73 urtekoa zala, 1797, itzi eban irakastea eta bere filosofia bear dan lez sailkatzeke bidea asi eban baiña larogei urteak bete ebazanean etorri jakon eriotzea.

...

ITURRIAK

Kant'en irakatsietan askoren ikutuak agiri dira, naizta bere pentsabidea jatorra izan.

Leibniz eta Wolf'en burubidea sartu ziran bere pentsabidera, naizta gero dogmatikuak zirala esan; or esaterako a priori ren arauak, bizi-ikasira jo barik.

Berak esan eban Hume'k itxartu ebala dogmatiku orre in bidetik urteteko. Baiña zentzun-bidera be ez zan oso-osoan sartu Kant, naizta ezagutzeko bide bakarrak zentzunak dirala esan.

Baiña bere bizitzan ikuturik geien daukana Newton dogu: Orrekan alkartzen dauz bizi-ikasía ta matematika.

Rousseau'gandik artu eban Kategoridun agintea ren antzekoa dan autonomia.

Lutero'tarren erlejiñoak be ikutu eutson bere ezezkortasun aundia ezarteaz.

Lenengo aztertzen dauzan iru arazoak egilleen arazoa (causalidad), izatearen eta zabaltasunaren zertasuna izan ziran.

Egilletasuna eta bere buruaren errazoketa emotea ez dira gauza bat, iñor ezin leiteke izan bere buruaren egille edo "causa sui".

Izatasuna bizi-ikasiak, eksperimentiak, agertzen dau eta burubideko azterketak